

B

BARREN

Lau urteko hutsunea

Mari Juli Arregi eta Hodei Otegi,
Arnaldo Otegiren emaztea eta semea

TOKIKOM



**Etxean, sailkatu
zaborra gaika**

Eman izena edukiontzi
marroia erabiltzeko:
943 741 050 edo arreta@elgoibar.net



30 min
+10 te
glia

30+10 mintegia hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzailea

Makina Erremintaren
Institutua

Kolaboratzaileak

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Ahize-AEK

Jardunaldiaren edukia:

Mintegiaren sarrera

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA
GIPUZKOAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
ELGOIBARKO UDALA

Mahal inguruk:

Euskal enpresak Errusian eta hizkuntza-
kudeaketa beraien estrategian
AFM, FAGOR AUTOMATION, ONA
ELECTRO-EROSION.

Basque brand, markaren osagal
euskalduntasuna duten enprekin
solasean. EUSKAL HERRIA ESNEA,
TERNUA, AZK-TALDEA. Dinamizatzailea:
Onintza Inureta, ARGIA.

Talferra:

Langileen prestakuntza euskaraz. LANEKI.

Hitzaldiak:

- Lanbide Heziketa eta Euskara. Gehitu proiektuko emaitzak. IMH-AHIZE AEK, Lanbide Heziketa Iraunkorra euskaraz, LANEKI
- Gasteizko Merkataritza euskararen balioa bezeroen fidelizatorako. ARTEZ.GASTEIZko UDALA
- Euskara lanaren bitartez ikasi. Proiektu pilotuaren aurkezpena. BANAIZ BAGARA.
- Ahozko erabilera enpresetan: nola neurtu, interpretatu eta eragin. EMUN
- Ingurune eleanitzetan lanean: zer tresna ditugu sarean? ELHUYAR
- LANGUNE hizkuntza-industria preclusterraren 2013-2016 estrategia.
- ENPRESAREAN egitasmoa, enpresa sare euskaraz

8. EDIZIOA

IMH, Elgoibar

2013/10/23

8:45-14:30

Izen-ematea (beharrezkoa):

www.imh.es - imh@imh.es

Telefona 943 74 41 32

IMH, Azkue auzoa 1 - Elgoibar

Informazio gehiago: www.imh.es



A TZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO

euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz

Urriak 16, asteazkena:

**XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko)
diren gauzak, kamarada! hitzaldia**

Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan



Kike Amorriz

Urriak 23, asteazkena:

Atzera begira, aurrera egiteko solasaldia

Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan



Lorea Agirre Unai Iturrige

Antolatzaileak:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia





Iñigo Lariz



Ainhoa Lendinez

Inpotentzia, eziñegona, nahigabia, tristuria... hónek sentimendu danok batera sentitu nittuan domekan, berriro ere. Eskua poltsikuan sartu, telefonua hartu eta 37 *whatsapp* mezu

berri nittuan. Zerbait pasatu da ba!, esan nion neure buruari. Mezuak irakurtzen hasi nitzanian konturatu nitzan iñoiz pasauko ez dirala pentsatzen diituzun hórretako bat benetan gertatu zala. Hau esaten zaban mezuak: "Mezu hauek ez dira erraz idazten: Andoni Areizaga hil da." Izoztuta geldittu nitzan. Hitzik esan ezinda, millaka oroitzapen buruan bueltaka, sentimendu desatseginak gorputzian aurre- eta atzera.

"Aurtengo Altitoy oso ederra izan da, be-
rezia: herritik atera, basoan barrena, base-
rietatik pasatuz. Inoiz egin ez genuen Altitoy.
Asko hobetu dugu, baina asko dago egite-
ko. Mila esker zure laguntzarengatik, Ainhoa.
Hurrengo urtean itxaroten zaitugu, B ibilbide-
an beharbada". Mezu hori bidali zidan Ando-
nik, otsailaren 6an. Presaka zegoen idatzita
eta mila akats zeuzkan. "Gizon honek mezuak
idazteko astirik ere ez dauka!", pentsatu nuen.
Nik ez nekien ia ezer mendi-eskiaz, baina han joan nintzen

Luz Saint Sauver-era, laguna helmugan ikusi, eta Pirinioetako lasterketa zuriari buruzko erreportajea egitera.

"Eskerrik asko, Andoni, zure ezagutza bestioi horren ondo transmititziagaittik"

Mendiko eskixan ibiltzen zeraten askok ezagutuko zenduen. Izan ere, bera zan Pirinioetan egitten dan mendi-eskiko proba garrantzitsuenaren zuzendarixa eta antolatzaile nagusixa. Berak diseinatu eta trazatu edo markatzen zittuan ibilbidiak eta ederki zekixan nondik nora eramán eskiatzaillia, horren ondo ezagutzen zuan frantziar Pirinioetan dagan Toy baillarako txoko ederrenak ezagutu ahal izateko. Baiña horretaz guztiaz gain, nik miresenten berezixa nion Andoniri. Mendi eskixan hasi nitzanian, beste algoibartar askorekin batera, berak antolatutako *stage-a* edo ikastaroa izan zan gure mendi-eski eskola. Berarekin ikasi genittuan konpetizuetan fokeatze teknikak, foka larruak eskixetatik askatzeko modurik bizkorrena, konpetizioko mendi eskixak diituan millaka trikimaillu... berari esker bihurtu giñan eskiatzeko materixalaren inguruko pisuan *fre-aky*. Eskerrik asko, Andoni, zure ezagutza bestioi horren ondo irakastia-gaittik. Mendiko eskixari zenion pasiuá transmitittu eta gugan sartzia lortu zendualako elur artian amets egiñarazten zizun har hori.

"Segituko dut idazten, Andonik elurretan eginiko urratsak ezaba ez daitezen"

Lasterketa airetik ikusteko aukera eman ziguten eta orduan ezagutu nuen Andoni. Lehia hasita zegoen, korrikalariak mendi zurietan ziren eta prentsakook antolatzaileekin ginen atzera eta aurrera bueltaka. On- do zihoan dena, baina tentsio ikaragarria nabaritu nuen giroan. Ando- niri begiratu nion: nerbioek eta kezkek argaldutako mutil bat ikusi nuen, irribarrea aurpegitik kendu gabe dena ondo egin nahian. Bi hilabetera, apirilaren 7an, jaso nuen Andoniren azken mezua, Pierra Menta men- di-eski lasterketatik bueltan. Bidea markatzera joana zen urtero bezala: "Gehienetan, partaideek beren emaitzez hitz egiten digute. Normala da. Pierra oso gogorra da eta horretan dute burua. Baina gutxik bueltatzen digute galdera: eta zuek, zer moduz? Korrikalari guztiek aritu beharko lukete lasterketa batean antolatzaile, nolako lana den uler dezaten". La- runbat iluntzean jaso genuen albistea. Txiletik bueltan zetorren, urteko "bigarren negua" eskiatzen igarota. Ez dut uste datorren urtean B ibil- bidean parte hartzeko beste maila izango dudarik, ezta antolatzaile tal- dean laguntzeko ere. Baina saiatuko naiz berriz ere Pirinioetako laster- keta zuria irakurleei hitzez azaltzen, Andonik elur zuritan egindako urra- tsak horren erraz ezabatu ez daitezen.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzen
Lantegia: egut, aluminio, PVC
Pisua onkara

GRUP
VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulak
Tel. 943 740 670

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sariugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK

elgoibar
biZi biZKai



MENDAKOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

LOMCEri ez!

Azkenaldian LOMCE izeneko hezkuntza sistemaren lege berriaren inguruan entzuten ditudanekin oso arduratuta nagoela aitortu behar dut. Inguruan ere sumatu dut ezinegoa, baina jaso dudan informazioa nahiko nahasia da momentuz. Horregatik animatu nahi nituzke gertueneko ditugun herriko ikastetxeak, gurasook informa gaitzaten lege berriak gure seme-alaben hezkuntzan izango lukeen eragina azal diezaguten (batez ere euskarazko hezkuntzari dagokionez). Informazio hori guztiok era argian jaso ostean, datorkigun erasoaren tamainako erantzuna emateko egoera hobean egongo ginateke.

Herri honetako alderdi eta eragile guztien artean erantzun bateratu eta irmoa eman behar dugu lege hau atzera botatzeko, eta hori horrela izan dadin zer egiteko prest gauden ere argitzen joan beharko ginateke. Izan ere, pentsatzen dut gustatu gabe ere legeak agintzen diena betetzeko ohitura duten askoren marra gorria ere gaudituko duela euskal hezkuntza suntsituko lukeen LOMCE legeak.

Informa gaitezen beraz, erantzun bateratu eta sendoa eman ahal izateko

N.S. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Sigma auzoan arratoi asko dago: "Sigma auzoan arratoiak dabilta, eta zenbait etxebizitzatan barrura ere sartzen dira. Uste dugu txoko batzuetan pozoia bota dutela, produktu txuri bat ikusi dugu behintzat eta pozoia izango dela pentsatu dugu. Umeek auzoan jolasten dute, eta lehengo batean nire semea ikusi nuen produktu txuri hori zegoen lekuan jolasean. Eskuak ahora eramaten dituzte gero umeek, eta beldurtu egin nintzen. Pozoia bada behintzat, txoko horiek itxi egin beharko liratekeela iruditzen zaigu, pozoiz hori umeen edo txakurren eskura geratu ez dadin. Eskerrik asko".

Sigmako zubia berritu egin behar da: "Sigmako zubia ugertuta dago, eta barandak sekulako zuloak ditu. Oinezkoentzako zubia da, eta auzotarek asko erabiltzen dute, errepidearen alde bate-tik bestera gurutzatzeko. Herriguneko barandak berritu ditu Udalak, eta beste auzo batzuetan ere egin dituzte hobekuntzak, baina Sigma ahaztuta dute. Hauteskunde kanpainan esan zuten gure auzorako hobekuntza plan bat prestatuko zutela, baina oraindik ez dute ezer egin. Eskertuko genuke gure auzoan ere behar diren berrikuntzak egitea".



Trenbide kalean ezin da aparkatu piboteen atzetik: "Bigarren aldiz gertatu zait gauza bera. Auto bat piboteen atzetik zegoen aparkatuta, eta aparkalekurako sarrera oztopatzen zuen. Barruan aparkatzeko lekuak zeuden, baina ez zegoen sartzeko lekurik, auto bat gaizki aparkatuta zegoelako. Lehen bi pibote zeuden, baina orain bakarra dago, eta jendeak aparkatu egiten du pibote horren atzean. Udalarari eskatuko nioke bigarren pibotea jartzeko edo bestela isunak jartzeko gaizki aparkatutako autoei".



San Lazaro Egoitzaren izenean, mila esker: "Eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu urtean zehar ekitaldiak edo jaiak antolatzen laguntzen diguten pertsona, talde eta erakunde guztiei. Nagusilan elkarteke Elgoibarko boluntarioek egiten duten lan ordainezina eta eskuzabala azpimarratu nahiko genuke, eta baita hainbat elkarteke gure egoiliarrekin izan duten bihotz-zabaltasuna ere. Berezi, ondorengoak aipatu nahiko genituzke: Errosario kaleko jai batzordea, Udalaren Musika Banda, Inazio Bereziartua Musika Eskola, Herri Eskola, Duo Plaentxi, Argia Taldea, Parrokiako Abesbatza, Miski - Peru, Azahar Taldea, Elgojaitza, San Bartolome Parrokia, Anateusk eta Galiza Etxea. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu, sarri askotan, bakarka eta isilpean egoitzarekin elkarlanean diharduten beste hainbati. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Udala".



Urriaren 16tik 19ra egingo dute aurten mugikortasun iraunkorraren astea

Bigarren eskuko bizikleten azoka egingo dute hilaren 19an

Bizikletaren erabilera eta oinezkoen mugikortasuna sustatzeko asmoz, mugikortasun iraunkorraren astea antolatu du Elgoibarko Udalak hirugarren urtez. Urriaren 16tik 19ra bitartean izango da, eta egun horietan hainbat ekitaldi egingo dituzte herrian. Besteak beste, LHko ikasleek isun sinbolikoak jarriko dizkiete gaizki aparkatuta dauden autoei, Oin Alai egitasmoko boluntarioak “heziki” dituzte udaltzainek, eta DBHko ikasleak eskolara bizikletaz joateko plana egingo dute. Horrez gain, Emugiko ibilgailu eta bizikleta elektrikoak probatzeko aukera izango dute 18 urte-tik gorakoek. Interesatuak 943 747 371 edo 688 684 633 telefonoetara deituta edo emugi@emugi.net helbidera idatzita eman dezakete izena.

Bigarren eskuko bizikleten feria

Hilaren 19an, zapatuan, bigarren eskuko bizikleten azoka egingo dute Lekuederren, eta herritarrek modu guztietako bizi-




kletak saltzeko edo trukatzeko aukera izango dute. Interesatuak izena eman beharko dute miriam@elgoibar.net helbidean edo 943 741 050 telefonoan. Izena eman eta zerbait erosten dutenen artean bi bizikleta zozketatuko dituzte. Honi lotuta, Iban Gonzalez Gobike dendako arduradunak bizikletak puntuan jarriko ditu, eta 13:00etan bizikleta arrunt bat bizikleta elektriko nola bihurtzen den erakutsiko du.

Karbonato sodikoarekin nahastutako kokaina lagin bat aurkitu zuten San Bartolome jaietan

Abuztuaren 31n Elgoibarren egindako Testing esku hartze batean substantzia arriskutsu bat antzeman zutela jakinarazi dute Ai Laket!! elkarteko kideek. Aztertutako kokaina lagin batean estreinakoz sodio karbonatoa antzeman dutela azaldu dute. Substantzia hori kontsumitzeak goragalea edota beherakoa eragin ditzake, besteak beste. Elgoibarko Udalak, Gizarte Ongizate Batzordearen baitan dagoen adikzioen prebentziorako zerbitzuaren bidez, prebentzioaren arloko hainbat ekintza bultzatzen ditu urtean zehar Elgoibarren. Horien artean, azken urteotan eta San Bartolome jaien barruan, alkoholemiari buruzko prebentzio programak eta drogen testak egiteko programak jarri dituzte abian Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, gehiegizko kontsumoa sahiesteko, egiazko informazio objektiboa eskaintzeko eta kontsumo arriskuez ohartarazteko. Aurten, 14 eta 52 urte arteko 215 pertsonari eman zitzaizen informazioa, eta, aurrez aurreko 35 test egin zitzaizkien 14 eta 39 urte arteko pertsonari. 35 lagin horien guztien artean, ausaz, hogeita lagin bidali zituzten laborategira, beste osagaien bat ote zuten egiaztatzeko eta horien portzentaje zehatzak zein ziren jakiteko. Hasieran susmorik sortu ez bazuen ere, lagin horien artean dago karbonato sodioarekin aizunduta dagoen kokaina lagina.

Martxan da merkatarien eskaintzei buruzko webgunea



Martxan da Elgoibar.klikbat.com webgunea, Elgoibarko ostalarien eta merkatarien eskaintzarik onenen erakusleho birtuala. Komertzio bakoitzak bere espazioa izango du webgunean, eta euren izango da webgune barruan daukaten espazioa kudeatzeko ardura. Euren aukeratuko dute nabarmendu nahi dituzten eskaintzak zein diren eta euren izango da argazkiak, prezioak eta deskribapenak jartzeko ardura. Eskaintzak ikusteko edo erosteko alta eman beharko da webgunean. Ondoren, dendara joan beharko da erositako produktuaren edo zerbitzuaren bila.

Irudia **Stock feria**



Elgoibartarrek estimatzen dute herrian erostea. Besterik ezin da esan dendariak herriko merkataritza sustatzeko astebururako antolatu zuten egitasmoak izan zuen arrakasta ikusita. Jende asko ibili zen zapatuan Lekuederren, stock ferian, eta dendetan ere igarri zuten sartu-irten handiagoa izan zutela.

Protagonista **Alfredo Etxeberria**

Bakearen aldeko Alkateen Nazioarteko Konferentzia egin dute egunotan Donostian, eta munduko hiri eta herri askotako alkateek hartu dute parte, tartean Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea. Etxeberriak Elgoibarko bizikidetzaren berri eman zuen konferentzian. Besteak beste, Siriako, Kolonbiako, Txileko, Argentinako, El Salvadorreko eta AEBetako udal kargudun eta alkateen hitzal-diak izan ziren.



Irudia **Herriraren aldeko bilkurak**

Espainiako Auzitegi Nazionalak Herrira mugimenduaren kontra agindutako operazioa albiste izan zen joan zen astean. Eloy Velascoren aginduz, hemezortzi lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak eta mobilizazio ugari egin ziren kalean operazioa salatze-ko. Danobat enpresaren egindako elkarretaratzea duzue hau.



Emakumeentzako antzerki tailerra antolatu du Haizeak

Haizea emakume taldeak antzerki tailerra antolatu du urriaren 16rako, Foru Aldundiaren babesarekin. Kultur Etxeko sotoan egingo dute tailerra, 18:00etatik 21:00etara. Itziar Lamuedrak zuzenduko du, eta izena emateko, haizeataldea@gmail.com helbidera idatzi behar dute interesatuek.

Burgosera irteera antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Egoitzak

Azaroaren 15ean izango da Burgosera irteera. 8:15ean irtengo dira Elgoibartik, Kalegoen plazatik, eta bidean geldialdi bat egingo dute hamaiketako egiteko. Hiru ordu inguru izango dituzte Burgos ezagutzeko, eta bazkaldu ostean, dantzaldia izango dute Gelatxorekin. Zozketak ere izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, 40.

Garraio publikoko sistema hobetzeko bilerak egingo ditu Aldundiak herrietan

Gipuzkoako garraio publikoko sistema hobetu nahi du Foru Aldundiak, eta horretarako, herritarrekin bilerak egingo ditu, "haien beharren arabera" berriro asmo dituelako autobus kontzesioak. Lehenengo bilera Mendaroko udaltxeko pleno aretoan egingo dute, urriaren 15ean, 18:30ean. Bilera irekia izango da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte. Kanpaina honetan parte hartzeko beste aukera batzuk ere izango dira, hala ere. www.garraioahobetzen.net webgunean galdetegi bat eskegi dute. Hori bete, eta Internetez bidali edota udaletxeetan jarriko dituzten postontzietan utzi ahal izango dira. Parte-hartzea bultzatzeko eta sartzeko, galdetegia betetzen dutenen artean Mugi/Lurraldebus txartelak kargatzeko hoge euroko bonoak zozketatuko dituzte.

LAU URTE ESPEROAN



Domekan lau urte beteko ditu preso Arnaldo Otegi (Eibar, 1958). Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epai-learen aginduz atxilotu zuten, Batasunaren Mahai Nazional berria osatzea leporatua [Bateragune izena jarri zion Garzonek eratu nahi zuten egitura berriari]. Operazio berean beste zortzi lagun ere eraman zituen preso Espainiako Poliziak, eta haietako lau kartzelara zigortu zituzten 2011ko irailean: Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta. Askok dira Bateragune auzikoak kalean behar luketela adierazi dutenak, asko dira libre ikusi nahi dituztenak, baina beneran haien falta igarri duenik bada, horiek senideak dira. Mari Juli Arregi eta Hodei Otegi, Arnaldo Otegiaren emazte eta semearekin, batu da BARREN, biharko 'Arnaldo askatu, politika askatu' herri ekimenak antolatu duen manifestazioaren harira (13:00etan, Kalegoen plazan hasita). Ez dira komunikabideetan eta ekitaldi publikoetan agertu zaleak, baina egin dute ahalegina, familiako guztien izenean.

Ainara Argoitia

Giza Eskubideen enparantzatik metro gutxira dauka bizitokia Arnaldo Otegi Elgoibarren, baina Logroñon dute preso, etxetik 150 bat kilometrora. Etzi beteko dira lau urte Espainiako Polizia bila etorri zitzaionetik. Donostian atxilotu zuten, LABen egoitzan, eta egun hura nekez ahaztuko dute haren etxean. “Dozenaka polizia etorri ziren hona. Kale osoa hartu zuten. Etxean, logelan hasi zuten miaketa, baina nazkatu ziren horrenbeste liburu eta gauza artean, eta trastelekura iritsi zirenerako laga zioten miatzeari. Hori bai, dena hankaz gora laga zuten. Orde-

nagailua, argazkiak eta gauza mordo bat eraman zituzten”, gogoratu du Mari Julik. Eramandakoak noiz itzuliko zain daude oraindik. Ez zen burua estalitako bisitari armatuak etxera sartzen zitzaizkion lehenengo aldia, baina, hala ere, “gogorra, oso gogorra” izan zela dio. “Ez genuen inondik inora espero”. Saran (Lapurdi) pasatu zuen eguna Hodeik, perretxikotan, eta gustura zetorren etxera, ibili luzearen ostean lehenengoz kuleto edo gorringo batzuk (*amanita caesarea*) batu zituztelako. Jangarriak ziren ziurtatzeko, aitari eraman nahi zizkion. Berehala zapuztu zitzaion eguna, baina. Zapuztu zioten. Gura-

soen etxea poliziaz bete zitzaion. Sua katua ere urduri zebilen, eta miaketak iraun bitartean sukaldean ixterik ba ote zuen galdetu zion Hodeik polizietako bati. Zur eta lur laga zuen erantzunak. ‘Zelan ez da ba urduri egongo! etxe guztia *txakurrez* beteta dauka eta’. “Adarra jotzeko gogoz haiek!”, bota du. Eta katuaz ari garela, agertu da protagonista bera ere elkarriketara. Harro-harro eginda, baina leun, oso leun, pasatu da elkarriketatuen artera, eta berehala erretiratu da atzera, pasilloan aurrera.

Madrilera eraman zituzten atxilotuak, Auzitegi Nazionalera. “Ez ziren egun motzak

izan". Bateragune sumarioa amaitutzat emanda, atxilotuak epaiketara bidean jarri zituen gero Pablo Ruz epaileak, 2010eko irailan. Sekulako oihartzuna izan zuen; baita Euskal Herriko mugetatik kanpora ere. 2011ko ekainaren 27an epaiketa hasi bitartean, hainbat mobilizazio egin ziren Euskal Herrian, eta entzute handia izan zuten bi el-karrizketa ere eman zituen Otegi: *El Pais* egunkariak argitaratu zuen bat, John Carlin kazetariak egindakoa. Kartzelan sartu aurretik esaten ari zena berrestera zetorren Otegi: ezker abertzaleak "aro berria" hasi zuela. "Armek, arma guztiek, behin betiko desagertu behar dute ekuazio politikotik. Indarkeria armatua ez dugu ikusten estrategia independentistarekin bateragarria". Hilabete gutxira, ezker abertzalearen jokabidea "irmoa eta atzeraezina" zela berretsi zuen, Estatu Batuetako *Wall Street Journal* egunkariari emandako elkarrizketan. Askok indarkeriatik aldendutako prozesu politikoa abian jarri zuena zela uste zuten gizona, baina, preso zeukaten, "terrorismoa" egotzita.

Itxaropen zapuztua

Sanfermin egunez amaitu zen epaiketa, 2011n. "Epaiketa ondo joan zen, eta horregatik, beharbada, inork ez genuen espero gero etorri zena". Zabaleta, Diez, Jacinto, Rodríguez eta Otegi bera kartzelara zigortu zituzten 2011ko irailaren 16an. Zalantza apurrak uxatu ziren: zezen handiegia zen Espainiako Auzitegi Nazionala. "Danbateko handia izan zen. Denek esaten ziguten epaiketa ondo irten zela eta kalera bidaliko zituztela, baina ez", azaldu du emazteak. Egonezin hori behin baino gehiagotan sentitu dute lau urteotan. "Egunero bizi dugu. Lau urtean egun bakar bat ez da pasatu norbaitek 'lasai, laster dira kalean' esan gabe", dio semeak.

Beharbada, baina, auzia Auzitegi Gorenara iritsi ostean etorri zen unerik mingotse-na, epaia publiko egin aurretikoan. "Prokuradoreak deitu zuen esanez absolbitu egiten zituztela. Autoak prestatu eta kartzelantz ere abiatu ziren batzuk, baina alarma faltsua!", gogoratu du Hodeik. "Gaizki-ulertua izan zen", azaldu du Mari Julik. "Epaia atzetik aurrera irakurtzen hasi zen prokuradorea, eta absoluzioa hitza irakurri zuen. Boto partikularra zen, baina!" [Bateragune auzian Auzitegi Nazionalak emandako epaia berretsi zuen Gorenak, baina bost epailetatik bi kontra

agertu ziren. Absoluzioaren alde egin zuen magistratu batek, eta epaiketa berriro egiteko eskatu beste batek].

"Ez dute bakerik nahi. Ez zaie komeni. Beste gauza batzuk tapatzeko baliatzen dute hau", dio etsita Mari Julik. "Beldurra diote. Jendea konbentzitzeko gaitasun handia dauka, eta beldur dira beste Lizarra-Garazi bat sortuko duten", gehitu du Hodeik. Espainiako justiziako bide guztiak agortu dituzte, eta itxaropena ere galdu dute. "Auzitegi Konstituzionalak helegitea tramiterako onartzea ere ez zen normala izan, eta onartu zuenean, izan genuen halako itxaropen bat, baina orduan ere ezer ez. Nik garbi daukat: beste bi urte eta erdi falta dira Arnaldo berriro etxean ikusteko" [Auzia ebatzi bitartean, epaiaren betearazpena bertan behera lagatzeko eskatu zuen auzipetuen defentsak, baina Bateraguneko bostek kartzelan segitzea ebatzi zuen Konstituzionalak].

Kartzelako bizimodua eta senideen egunerokoa

Astean bost minutuko zazpi dei egin ditzake Arnaldok, eta hilean bis a bis baterako aukera dauka. "Zigortuta gaituzte orain. Lehen, sakelako telefonora deitzeko aukera zeukan, baina iazko urriari BECen egin zuten ekitaldiaz geroztik, debekatuta dauka mobilatar deitzea. Etxera bakarrik deitu dezake orain" [Otegiaren ahotso grabatuta entzun zuten BECen bildu zirenek]. Egunean bost minutu ez dira ezer; are gehiago etxean bost direnean kartzelan preso dutenarekin hitz egitekoak. "Konturatu orduko bukatzen da deia", dio Mari Julik. Zer kontatua beti izaten du etxeok, baina horrez gain, batzuk eta besteak emandako mezuek eta animoak ere helarazi behar izaten dira, eta ez da erraza.

Aurrez aurreko bisitak ere urriak dira. Hilean behin izaten dute bisita. Gehienez lau lagun joan ahal izaten di-

ra bisita horretara, eta ordu eta erdian errenditu behar izaten dituzte elkarri esan beharrekoak. Hodeik aitortu du txandarik hartu ezin da ibiltzen direla sarri. "Ez da isiltzen. Azele-ratuta egoten da". Ez dira politikaz jarduteko bisitak izaten berez, baina politikaz ez hitz egitea zaila izaten dela esan du Mari Julik. "Beti dago zerbait etal".

Bisitez ari garela, "bisita bereziak" izatea ere debekatu dizkiotela zehaztu dute etxeok. Europako ordezkariak, sindikatuetakoak, eta alderdietakoak joan izan zaizkio bisitan, baina bukatu dira horrelakoak ere. Argazkirik ere ezin dute egin. "Hamaika urteko eten bat daukagu. Hamaika urtetan ez dugu argazkirik egin ahal izan elkarrekin. Zer da ba argazki bat, ezta? Ba guk hori ere ez daukagu. Oso argazki gutxi daukagu elkarrekin", gehitu du emazteak. Berez, debekatuta dago kartzela barruan argazkiak egitea, baina due-la gutxira arte, funtzionarioek bazuten hala eskatzen zieten presoei argazkia egiteko aukera. "0,30 zentimo-edo kobratzen zuten. Hor ere negozioa". Logroñoako kartzelan Augusto Ibañez *Titin III* pilotariarekin ateratako argazki batek harrotu zituen hautsak. Otegi ez zela bere laguna publikoki esatera behartuta sentitu zen *Titin III*, argazki hark sortu zuen zalapartaren ostean.





“Debeku asko” jarri dizkiote azkenaldian. Nolanahi ere, animoz sendo ikusten dute Arnaldo. “Ideiaz josita dauka burua. Badaki zergatik duten kartzelan, eta espetxealdiak ahuldu baino gehiago indartu egin du. Euskal Herriarekiko konpromisoari tinko eusten dio”, nabarmendu du semeak. Eta “sasoiari” egon nahi du libre lagatzen dutenerako. “Egunean 40 bat minutu egiten zituen korrika orain arte, baina orain, bi egunetik behin egiten du korrika, argalegi dagoela esan diotelako”.

Kartzelaldia Zuzenbidea ikasteko baliatzen ari da. “Gaztetatik” nahi izan duen zer-bait izan dela dio emazteak. Sei ikasgai hartu ditu, eta “burubelari” ari da. “Ez dakizue ondo zer egin duzuen ni kartzelan sartzen” esaten du berak brometan”. Ikasitakoak praktikan jartzeko aukera ere badu kartzelan. “Instantziak betetzen eta helegiteak prestatzen ere laguntzen diete preso sozialeri”. Jakin badakite preso politiko askoren aldean preso sozialen egoera zaila dela. Drogomenpekotasuna duten jendea dira asko, lapurreta delituengatik kartzelatutakoak. “Pobreak azken batean. Kartzelak beti dira pobreen-tzat”, bota du itzulgingururik gabe Hodeik, eta anekdoten tartea hasi du. “Argalaren omenaldian terrorismoa goretsi zuela egotzita Martutenen preso sartu zutenean (2006), ukrainiar bat egin zuten lagun. Makina txanponjale bat lapurtzeagatik zeukaten preso, eta epaiketaren zain zegoen. Jone Goirizelaia abokatuak egindako gestioengatik laga zuten libre. Orain, heroinarekin arazoak dituen bizkaitar bat dago eurekin batera, eta drogarik ez probatzeko baldintza jarri diote eurekin ibiltzeko”, azaldu du Hodeik. Kasu bixiak ere badira. Sabaia begira jarri da bat-

batean Mari Juli. “Ikusten duzu hor goiko beltzune hori?” –barre batean hasi da-. Kartzelako beste lagun baten erruz daukagu hori hor. ‘Libre lagako zaituztela ikusi dut. Esan emazteari pizteko etxean kandela zuri bat eta jartzeko ondoan zure argazkia’ esan zion behin batek. Eta nik jarri, jakina”. Urtebete inguruan eduki dute kandela piztuta, baina aspertu dira.

Sartu-irtenetara “ohituta”

Guztira, hamaika urte egin ditu kartzelan Otegik, eta gogorra den arren, hein batean ekandu dira etxeok sartu-irtenetara. “Gurasoek pasatzen dute okerren. Azkenean hau oso golpe gogorra izan da haien-tzat”, esan du Mari Julik [Seme bakarra da]. 1987ko uztailean atxilotu zuten lehengoz Baionan bizi zirela. [18 bat urte zituela egin zuen ihes Otegik, gaur emaztea duenarekin]. Espainiako Auzitegi Nazionalak sei urteko espetxe zigorra jarri zion, etakide zela 1979an bahiketa bat egin zuela leporatuta. Mari Julik gogoan iltzatuta dauka egun hori. “Arnaldo atxilotu zuten, eta nik banekien nire bila ere etorriko zirela. Arrapaladan joan nintzen ikastolara eta mesedez Hodei Poliziari ez entregatzeko eskatu nien, gurasoak atxilotzen zituzten kasuan, seme-alabak harrera-etxeetara eramaten zituztelako. Aittita-amamen zembakia eman nien”. Gurasoak atxilotuta zituela, Poliziaren furgoi batean pasatu zuen muga Hodeik, aittita-amamekin. 5 urte zituen orduan. Zigorren erdia bete ostean libre laga zuten gero Arnaldo.

Zigorren beste erdia betetzeko Poliziak bigarren goz aita eraman zionean 12 bat urte zituen Hodeik. Etxetik irten berri

zen aitarekin, ikastolara joateko, eta Santa Ana kalean auto bat gurutzatu zitzaizen begien aurrean. Polizia zen. Aitari eskuburdinak lotzen ikusi zituen Hodeik. “Ikastolaraino laguntzen lagatzeko eskatu zien aitak, baina ezetz haiek, eta ama etorri zen bila”. Eta zer diren gauzak! Tentsio une horretan, aita preso eraman zioten haurren izu aurpegiari erreparatzeko astirik hartu gabe, ikastolara eraman zuen semea Mari Julik. “Bizitza normala egin behar zela esaten zuten, eta nik hartu eta ikastolara eraman! Gaixoa”, bota du irribarez. Garazi, Arnaldoren eta Mari Juliren alaba, jairo gabe zegoen artean. Hamahiru urteko aldea dute nebarrebek euren artean. “Nik ez nuen umerik izan nahi Arnaldo kartzelan zela, eta azkenean, ikusi! Azkenean biak niretzat izan dira”, bota du. “Tragatu egin behar da. Ezin zara bizitza osoan ozpinduta bizi”, dio.

1997. urtean ezker abertzalearen bozeramaile izendatu zute Arnaldo Otegi, eta “ia oharkabean”, egunero telebista eta egunkarietan ikustera ohitu behar izan zuten etxeok. Barruak irakiarazi dizkioten titularrak irakurtzea ere tokatu zaie, baina ikasi dute ez ikusiarena egiten. *El Confidencial* ek atera zuen bat ekarri du gogora Hodeik. “Esan zuten Parot doktrinara batzeko eskatzen ziela presoiei-edo. Halakoetan, ‘non hostia bizi dira hauek?’ pentsatzen duzu. Aitak badaki bere egoeran beste asko daukela eta bera bat gehiago dela”. Bateragune auzian bertan beste lau dira, eta presoak ehunka. Elgoibarri lotutakoak ekarri dituzte gogora: 19/98 auzian kartzelatutako Juan Mari Mendizabal, Imanol Iparragirre, Josu Lariz, eta Sebas Etxaniz. Eskertuta daude, hala ere, Arnaldok jaso duen elkartasun oldearekin. “Ikaragarria izan da. Eskerrak ematea besterik ez daukagu. Eskerrak asko lagunek, plataformari eta Elgoibar osoari”, bota du Mari Julik.

Esparru zabaleko atxikimenduak batu dituzte, eta tartean badira harritu dituenak ere. “Willy Toledo aktore espainiarrarena bixia egin zitzaidan. Oharartazi nion bere kalterako izan zitekeela, eta izan da, jakina. Francesco Cossiga Italiako politikari eskuindarrekin ere oso harreman ona zeukan. Aznar gorroto zuen, eta nik uste dut horregatik egin zela aitaren lagun”, dio Hodeik.

Pertsona publikoa

Pertsona publiko izateak suposatzen duen karga hori euren gain jausi zen. "Hasieran ez zara konturatzen luzarora horrek zer suposatzen duen", esan dute. Anekdotarik ere badute. "Lagunekin Burgira oportetara joan ginenaldi batean, ostatuko etxeoandreak zera galdetu ei zion Garaziri: "Eta? Zure aitak non lan egiten du?". Eta hark, birritan pentsatu gabe: 'Albistegian'. "Egun horretan, bi gizonetako etorri zitzaizkigun ostatura Arnaldok ia hitzaldi bat emango lukeen galdetuz eta hark, eman".

14 urte zituela ezagutu zuen Mari Julik Arnaldo, eta beti egon da haren atzean. "Asko zaindu dudan kontua da. Pertsonaia publikoa bera da. Orain kartzelan dutela, ordea, zaila da ezetz esatea, bere egoera salatzeke aukera ere badelako. Gaztezulokoei zabaldu genien aurrenekoz atea, eta orain, zuei". Tokatzen zaie ardurak hartzea. Hodeik hartu du, esaterako, Arnaldo Otegi-ren webgunearen ardura, eta denei tokatu zaie noizbait ekitaldi publikoetan aurpegia ematea. Azkena, Garaziri. Berak jaso zuen, esaterako, aitari eskaini zioten Gernika Sa-

ria [Arnaldo Otegi eta Jesus Egiguren sari-tu zituzten "bakeari egindako ekarpenagatik", eta bien alabek, Garazik eta Maria Egigurenek jaso zuten, aiten izenean]. Bistan da, baina, ez direla zaleak. "Gure etxean aita da ekarria duena; gu isilagoak gara", esan du Hodeik.

Ekarri onekoa. Horixe da, etxekoan esanetan, Arnaldo Otegi hobeto definitzeko modua. "Hitz jario handikoa, alaia eta oso baikorra", zehaztu du emazteak. "Edozeinekin hitz egiteko gai da, eta badaki entzuten, bestearen ideiekin bat ez egin arren". Etxean egotea gustatzen zaio, playstation-ean jokatzea ere bai, eta realzale amorratua da. "Txapeldunen Ligara iritsi direla eta pozik dago orain". Liburuak "jan" egiten ditu, eta Cuatro telebista kateko *Homeland* telesailera "engantxatuta" egon da. Jantzera eta itxura bera ere asko zaintzen ditu. "Estiloso da". "Ekitaldi publikoren bat duenean beti galdetzen du zer jantzi"; dio semeak. "Ekitaldiatarako bakarrik ez. Egunero galdetzen du", zuzendu dio amak. Elgoibarko bizimodua atsegin du, eta Txiki Eguna eta Gabon Zahar feria ditu

egunik gustukoena, eta, jakina, Euskal Herria eta politika dira bere bi pasioak.

Libre lagako duten eguna

Libre lagatzen duten egunean itsasoa ikusi nahiko lukeela adierazi du Arnaldok azkeneko elkarrizketan, baina etxeoak ez dira egun horretan pentsatzera jarri. "Zertarako? Luzeago egiteko?". Esana die, baina, Veneziara joan nahiko lukeela. "Zigorra beteta irte ten bada, ez du izango estatutik irteteko debekua, baina bestela ikusi egin behar!", gogoratu du emazteak. Ongi-etorri bazkari edo afariren bat egingo dute, etxeke beroan. "Irteten denean hori da gehien estimatzen duena: etxeke lasaitasuna", esan du semeak. Jakin badakite, baina, pasatu beharko dutela bestetik ere. "Normala da. Aste gogorra izaten da". Edozelan ere, desiatzen daude hortik pasatzeko. Batetik, Arnaldo etxean izateko, eta bestetik, eurek "beste plano batera pasatzeko". "Hurrengo elkarrizketa berearekin hortaz", bota die kazetariak etxetik alde egiterako. "Bi urte eta erdi itxaron beharko duzu, kalean egin nahi badiozu behintzat", esanez agurtu du Mari Julik.



ASIER ZENGOTITA, Arnaldo askatu, politika askatu plataformaren izenean

"Ez genuen espero horren luze irautea honek"

Luze eginda daude Arnaldo askatu, politika askatu plataformako lagunak ere. "Ez genuen espero horren luze irautea honek", esan du Asier Zengotitak. Hiru erronka zehaztu zituzten plataforma aurkeztu zutenen: bakegintzan, sigla politikoetatik kanpo dauden herritar askoren partaidetza lortzea; Elgoibarren eta baita Euskal Herrian ere politikak aukera izan dezala eskatzea, eta jakina, Arnaldo eta haren senideei hurbiltasuna adieraztea eta Arnaldo bera libre uztea exijitzea. "Ez da samurra etxeke bat espetxean izatea; are gutxiago, inongo justifikaziorik gabe, itsukeriaren eta estrategia kalkulatuaren ondorio denean", zioen plataformaren aurreneko oharrak. Eta horixe salatzen jarraitzen dute gaur, hiru urte gerogo. "Erabaki politiko bategatik dute kartzelan Otegi. Hori inork gutxi jarriko du zalantzan", esan du Zengotitak. Arnaldok bakegintzan egin duen ekarpena "funtsezkoa" izan dela nabarmendu du, eta orain ere, libre lagako balute, "izugarri" lagunduko lukeela. "Amorratuta da-

go momentu historiko honetan barruan daukatelako eta ezin duelako lagundu".

Behin baino gehiagotan joan zaio bisitan Asier, eta "sendo" topatu du ikusi duen aldiro. "Ikaragarria da zenbat ideia dauzkan. Gu denon aurretik doa. Hitz egiten duzu politikaz, sindikalgintzaz... eta ikustekoa da zein garbi ikusten duen etorkizunean hartu beharreko bidea", gehitu du. "Pena da halako pertsona bat barruan izatea; amorragarria da". Horregatik, *Bateragune auzian* atxilotu zutenetik gaur arte, "frustrazio" sentimendua sarri bizi izan dute plataforman. Behin baino gehiagotan pentsatu dugu berehala lagako zutela libre, eta azkenean ezer ez". Horregatik, saiatzeko dira burua hotz mantentzen; horregatik jarraitzen dute eguneroko lanean tematuta. "Beste bi urte eta erdi falta ditu zigorra betetzeko", dio. Ziur dago nekez ikusiko duela egun hori baino aurretik kalean, baina familiaoak ez bezala, gai da egun hori irudikatzen: "Jairen bat egin beharko dugu behintzat, ospatzekoa izango da eta". Arnaldo definitzeko eskatuta, bi ezaugarri eman ditu, birritan pentsatu gabe. "Bai-korra da, oso baikorra, eta ekarri onekoa. Jendea erakartzeko gaitasuna dauka, konbentzitzen du, eta erraz irabazten du jendea. Dohai hori dauka, eta horregatik dago preso".

NAPOKA IRIA

MIREN NARBAIZA eta ANDER MUJIKA

“Barrura begirako
bidaia egin dugu disko berrian”

Bikote gaztea, baina musikan beteranoak; eibartarra bata, bestea elgoibartarra; ahots goxoa eta gitarra doinu be-
rezia. Ez dute aurkezpenik behar: Miren Narbaiza eta Ander Mujika dira; Napoka Iria. Orain dela ia hamar urte ha-
si ziren elkarrekin abesten, eta ordutik hainbat lan argitaratu badituzte ere, joan zen astean kaleratu zuten estudio-
an grabatutako lehen diskoa: ‘Arnasten ikasteko berriz’. Beraien estiloan dator diskoa, rock akustikoan, hain zuzen
ere. Diskoan hainbat musikaririk hartu dute parte, tartean Iban Urizar elgoibartarrak lagundu die tronpeta eta harmo-
niumarekin. Gaur bertan aurkeztuko dute diskoa zuzenean, Donostiako Lugaritz aretoan. Diskoaren aurkezpen bira
txiki bat egingo dute urrian eta azaroan, eta diskoaren ekoizpenean lagundu duten musikariek ere hartuko dute par-
te kontzertu horietan. Elgoibarrera ere etorriko dira, baina eguna oraindik zehazteko dute.

'Amasten ikasteko berriz'. Zer ezkututzen da izenburu horren atzean?

Behar genuen atsedena hartzea, deskantsatu eta berriz airea hartzea. Oinak lurrean jarri, gauzak birplanteatu eta berriz oinez ibiltzen hastea behar genuen. Urte asko eman ditugu geratu gabe, gauzak modu berean egiten eta aldatzeko momentua iritsi da. Gure barnera begiratu dugu disko berrian, eta hori abesti guztietan islatzen da.

Estudioko lehen lan luzea izan da. Zuzeneko ala estudiokoa duzue nahiago?

Zuzeneko grabatu genuenean bazeukan bere zentzua, baina oraingoan argi geneukan estudioan grabatu nahi genuela. Disko bezala hau askoz konpletoagoa da. Urtebeteko lanaren ostean kaleratu dugu disko hau, eta oso pozik geratu gara emaitzarekin. Denbora dedikatu nahi genion diskoari, eta hasieratik amaierara arteko prozesuak urtebete iraun du.

Zer aurkituko dugu disko honetan?

Napoka Iria zaleek aldatetak igarriko dituzte, bai abestietan eta baita abesteko moduan ere. Barrura begirako bidai hori disko osoan islatzen da. Abesti sosegatuagoak irten zaizkigu, lasaigoa da orokorrean, baina abesti batzuek badituzte ukitu makarratxoak ere.

Disko honetan hainbat musikariren kolaborazioa izan duzue, ezta?

Bai, oso pozik geratu gara horrekin. Iban Urrazrek tronpeta eta harmoniuma sartu ditu, ekoizpenaz Ibai Gogorza Borrokan taldekoa arduratu da, eta kontrabaxua eta gitarra ere jo ditu, perkusioan Felix Buff-ek lagundu digu... Diskoa aurkezteko lehenengo kontzertuetan laurok arituko gara, eta azarotik aurrera biok jarraituko dugu, oraingo estiloan.

Gaur egun diskoak saltzea gero eta zailagoa dela diote musikariek. Posible al da egungo egoeran musikatik bizitzea?

Guk orain dela urtebete egin genuen musikatik bizitzeko apustua. Gure lanak utzi genituen, bete-betean musikari eskaintzeko, eta momentuz aurrera egin dugu. Ez da erraza musikaz bizitzea eta badakigu ez garela aberastuko, baina guk nahi duguna egiten dugu eta zoriontsu gara. Kontzertuak ematea eta diskoak saltzea da garrantzitsuena. Orain krisian gaude, eta murrizketen eraginez gero eta zailagoa da diskoak saltzea eta kontzertuak ematea, baina guk ez ditugu urte opa-roak ezagutu. Ia hasi ginenetik krisian murgilduta gaude, beraz ez dugu horrenbeste iga-

ri. Kontzertuen ondorenean saltzen ditugu guk disko gehien. Dendetan ere ez ditugu emaitza txarrak eduki, eta Durangoko Azoka ere puntu klabea da guretzako. Lehen baino gutxiago salduko da seguruenik, eta lehen asko saltzen zuenak beherakada igarriko du dudarik gabe, baina ez da gure kasua. Euskadin rock and roll-ak ez du dirurik ematen, baina pozik bizi gara eta hori oso garrantzitsua da.

Musikari askok Internetez soilik ateratzen dituzte abestiak. Zuek oraindik CD formatuari eutsi diozue.

Bai, ez geneukan horren dudarik. CDa eskuetan edukitzea gustatzen zaigu, eta ahal izango bagenu biniloa ere aterako genuke, baina hori oso garestia da. Pena ematen du horrelako disko bat egin eta Interneten baka-rik jartzeak.

“Napoka Iria zaleek aldatetak igarriko dituzte abestietan eta abesteko moduan”

Zein da gaur egun musikagintzaren egoera?

Mugimendu handia dago. Euskal Herrian bertan talde pila bat daude, areto asko eta ekintza pila bat, baina egoera zaila da. Krisian gaude, eta kulturen, hezkuntzan, osasunean... denean egon dira murrizketak, eta hori ez da bidea. Gizarte batek hori guztia behar du arnasteko. Mugimendu alternatibo asko dago, eta horri esker badago kontzertuak emateko aukera. Kuriosidadea eta interesa izanez gero, badago musika desberdina aurkitzeko aukera.

'Tumatxak' telebista saioan euskal musikariren bertsioak egiten dituzue. Nolako esperientzia izan da?

Oso ona! Lan polita daukagu saioan! Abesti bat ematen digute eta guk nahi duguna egin ahal dugu abesti horrekin. Batzuei gustatzen zaie eta beste batzuei ez, baina guk gustura egiten dugu. Eta telebistan irteera sekulakoa da! Kanean jende askok geratzen gaitu, eta sare sozialetan geneukan jarraitzaileen kopurua disparatu egin da. Diskoaren aurkezpena

ere egunotan egin dugu, eta medioetan ohi baino gehiago irten gara. Dena batera tokatu zaigu.

Zuen kontzertuetan ere egin izan dituzue beste taldeen bertsioak. Zer duzue nahiago, zuen abestiak sortzea ala bertsioak egitea?

Beti gustatu izan zaigu bertsioak egitea, eta zuzenekoetan gure gustuko taldeen abestiak jo izan ditugu. Jolasa modukoa da bertsioak egitea. Gure abestiak direnean gehiago lantzen ditugu; gure ume txikiak bezalakoak dira. Baina bi gauzak gustatzen zaizkigu.

Zein da zuentzat euskal musikagintzan tumatxa?

Joseba Irazoki. Geniala da! Baina talde askoren fansak gara: Itoitz, Anari, Borrokan, Layo Raser... Gaur egungo musika taldeen berri ere eman beharko lukete *Tumatxak* saioan. Kalitatezko saioa da, ondo eginga dago, gustoz lantzen dute gaia, eta pedagogikoki ere oso ondo dago.

Zeri abesten dio Napoka Iriak?

Barrutik irteten zaiguna abesten dugu, gure bizipenak dira nagusi. Momentu bakoitzean tokatzen dena. Normalean musika egiten dugu aurretik, eta gero letrak jartzen dizkio. Azken diskoan barrura begirako bidaia egin dugu, eta agian letrak tematika konkretuagoa dute, egungo egoerari lotuagoak. Egia esanda, oso zaila da hitzekin azaltzea abesten duguna. Askoz hobeto espresatzen gara kantuan.

2005ean sortu zenuten Napoka Iria. Nola hasi zen zuen abentura hau?

Nahiko txiripaz izan zen. Bakoitzak bere taldea zeukan, baina bata bestearekin jotzen hasi ginen, eta bion arteko maitasun musikala sortu zen. Orduetik bikote bezala dihardugu.

Gaur egingo duzue diskoaren zuzeneko aurkezpena Donostian. Zein dira hemendik aurrerako asmoak?

Bost kontzertu eskainiko ditugu disko aurkezteko, eta horietako bat Markinan izango da, azaroaren 10ean. Hemengo jendeari eskatu nahi diogu Markinara joateko gure kontzertua ikustera. Elgoibarrera ere etorriko gara, baina eguna oraindik zehazteko daukagu.

Non eskuratu daiteke zuen diskoa?

Dendetan salgai dago, eta gure kontzertuetan ere erosi ahal izango da, hamar euroan. Interneten entzungai dago, eta MP3 formatuan erosi daiteke sarean, zazpi euroan.

MENDIKO ONDAREA

BERRESKURATU, AUZOLANEAN



30 bat lagunek jardun dute auzolanean, Sargoateko iturria berreskuratzeko lanetan.



Elgoibar inguruko mendi ondarea berreskuratzeko egitasmoa jarri du martxan Morkaiko mendizale elkarteak. Iturriak, postontziak edo erromeria gune asko galdu egin dira urteen eraginez, eta horiek berreskuratu nahi ditu Morkaikok, auzolanean. Zapatuan egin zuten lehen ekinaldia Sargoaten, baina ez da azkena izango. Aitzol Arriola Morkaikoko kideak azaldu dizkigu egitasmo honen nondik norakoak.

Ainhoa Andonegi

Paraje ederrez gain, ondare handia dago gure inguruko mendietan, eta hori berreskuratzeko lanari ekin dio Morkaikok. Garai batean garrantzi handiko guneak zirenak, gaur egun “toki desatseginak” dira, eta jendea apenas joaten da. Gune horien zerrenda osatu dute Morkaikoko kideek, eta lanean hasi dira. Baina ez edonola: Auzolanean egingo dituzte ondarea berreskuratzeko lanak. “Kirola eta lehiaketaz aparte, mendira joatea ekintza kolektibo bat ere bada”, esan du Aitzol Arriolak, eta hori suspertu nahi dute.

Garai batean esanahi berezia zeukan mendiko ondareak. Izan ere, aisialdirako eskaintza oso urria zen garaian, herritarrak sarri

mendira joaten ziren, eta mendi-ondare horren bueltan batzen ziren. Iturriak ez ziren ura edateko guneak soilik, elkarguneak ziren; buzoiak mendiak identifikatzeko balio zuten, eta baita umeak mendira joateko ere, euren izena zenbat eta buzoi gehiagotan sartuz errekonozimendu handiagoa jasotzen zutelako. “Mendi guneak herriko txokoak dira, Maala edota Txankakua diren bezala”, eta horregatik berreskuratu nahi dituzte. Baina horrez gain, Morkaikoko aintzindariak begirunea zor dietela uste dutelako ere bai. Elgoibar inguruko mendi-ondare gehiena Morkaikok sortu zuen orain dela 50-60 urte inguru, eta lan horrek “errespetua” merezi du.

Sargoate lehena, baina ez azkena

Mendi-ondarea berreskuratzeko guneen zerrenda luzea osatu dute, eta epe luzean egiteko lanak identifikatu dituzte. Presarik ez dute, baina hasi dira lanean. Sargoaten egin dute lehenengo ekinaldia, oraintxe zelako momentua. Pinuak bota zituzten, eta iturri ingurua berreskuratzeko unerik aproposena hauxe zela iruditu zitzairen Morkaiko kideei. Horretarako, iturri inguruan hektarea bateko lursaila erosi du elkarteak. Iñaki Zubizarreta Otsourtia baserrikoarekin jarri ziren harremanetan, eta inolako arazorik gabe saldu zien lursaila: "Gure egitasmoarekin bat egin zuen hasiera-hasieratik, eta izugarri lagundu digu". Zabaleta baserriko oñederratarrei erosi zieten beste lur zati bat, eta haiei ere eskerrak eman nahi dizkiete. Era berean, Aldapazar txabolako Pilar Arrese, Martin Galartza, Ana Artetxe eta Luis Mendibilen lana nabarmendu dute, azken horrena bereziki, iturri ingurua berritzeko ideia eta aholku "pila" bat eman dizkielako. Igeltsero lanetan, bestalde, Modesto Cid aritu da, eta hari ere eman nahi dizkiete eskerrak. Eta nola ez, joan zen zapatuan batu zen lantaldearen lana ere eskertu nahi dute. 30 bat laguneko taldea osatu zuten, eta guztien artean egin zituzten iturri ingurua berreskuratzeko lanak. "Lantalde polita osatu dugu, jendea motibatuta dago eta lan gehiago egiteko gogoz, gainera". Basoa garbitu, ingurua leundu, iturria garbitu, tuberia berriak sartu, belarra erein eta seinaleak jarri dituzte, besteak beste. Iturri aurrealdea garbi utzi dute, handik Elgoibar primeran ikusten delako. Negu amaieran, umeekin joango dira iturri inguruan zuhaitzak landatzera, eta horrekin amaituko dituzte lanak.

Finantzazioa

Morkaikoren diru-iturriez gain, diru-laguntza publikoak ere jaso ditu egitasmo honek Foru Aldunditik, eta horri esker, hasieran uste zutena baino gehiago egin ahal izan dute Sargoaten. Horrez gain, Iker Leonardo, Arkaitz Iureta, Iñigo Lariz eta Joseba Elustondok euren mendiko esperientziei buruzko jardunaldiak eskaintzeagatik jasotako dirua Morkaikori eman zioten. Krisi egoera honetan finantzazioa aurkitzea lan zaila dela badakite Morkaikokoek, baina etorkizunerako Udalak egitasmo honekin bat egitea nahiko lukete.

Moru

Lehenengo ekinaldia izan da Sargoatekoa, baina ez da azkena izango. Beste hainbat guneren artean, Moru dauka bereziki begiz jota Morkaikok. Moru toki argitsua eta atsegina izatea nahi dute, elgoibartarrek gozatzeko gune bat. "Ondare handia dauka Moruk, gertu dago eta ezin dugu alperrik galtzen utzi". Morun lan handia egin beharko dutela aurreikusi dute, eta ez dakite noiz ekin ahaliko dioten lanari. Bien bitartean, Atxolin, Urnabitza eta beste zonalde batzuk berreskuratuko dituzte.



1959an eraiki zuten Sargoateko iturria, Prudencio Etxaniz bazkide fundatzailea izan zenaren omenez.



Jende asko bildu zen iturriaren inaugurazio egunean.



Orain dela hiruzpalau hilabeteko argazkia da goikoa. Iturri ingurua zaindu gabe dago.



Oraindik xehetasunak falta dira lana bukatzeko, baina antolatzaileak gustura geratu dira emaitzarekin.

Errosario kaleko jaien errepasoa, iruditan

Errosarioko Ama Birjinaren omenezko jaiak ospatu dituzte Errosario kalean, eta jaiak irudi asko laga dizkigute: txokolate jana, Arnoko zezentxoekin egin zuten sokamuturra, Munduko IV. Igel-toka jaurtiketako txapelketa, alde zaharreko ondarea hobeto ezagutu eta eza-gutarazteko Pello Arrietak gidatutako ibilaldia, Mendaroko giza probetako talde mixtoak Kalebarren plazan eskaini zuen erakustaldia, Errosarioko Ama Birjinaren omenez Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideek dantzatu zuten ezpata dantza, e.a. Horietako batzuk ekarri ditugu orrialde honetara. Azkenik, Errosario kaleko jai batzordeak antolatutako errifaren zozketan 1.769 zenbakia izan da sariduna. (ordezkoa 2733). Argazki gehiago eta bideoa www.elgoiBAREN.net atarian.



Euriari aurre eginez, Mautitxa txarangak alaitu zuen giroa.



Gozatu ederra hartu zuten txikienek sokamuturrean.



Errosarioko Ama Birjinaren omenez, ezpata-dantza.



Pello Arrietak gidatu zuen alde zaharreko ondarea ezagutarazteko ibilaldia.



50 bat lagunek hartu zuten parte igel-toka jaurtiketako txapelketan.



Mendaroko giza probetako talde mixtoaren erakustaldia, kalebarren plazan.

Euskararen egoeraz jardungo du Kike Amonarrizek hilaren 16an

Gazteen tipologia soziolinguistiko anitzak aztertuko ditu

Euskararen egoeraz eta euskaldun-tasunaz hausnatzera bultzatuko ditu Kike Amonarrizek eguaztenean *Atzera begira*, *aurrera egiteko* hitzaldi-ziklora batzen direnak. *XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak*, *kamarada!* izeneko hitzaldia eman-go du soziolinguista tolosarrak.

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatu dute *Atzera begira*, *aurrera egiteko*. *Euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz* zikloa. Gotzon Garate zenaren oroimenean antolatu zuten aurrenekoa, Gotzon hil eta urtebetera (2009), eta ordutik, leku berezia egin du urriko kultur programazioan. Elgoibartarren artean euskalduntasuna sustatzeko helburuarekin antolatzen dute, eta Amonarrizena aurtengo bigarren saioa da.

Euskal kantagintza

Eguaztenean eskaini zuten zikloko le-



Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez musika eskolan.

hen saioa Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez musikariek musika eskolako auditorioan. Euskarazko musikagintzaren sustapenaz eta transmisioaz jardun zuten bereziki, *Baga biga higa* hitzaldi multimedian. Hilaren 23an, berriz, Lorea Agirre kazetari eta antropologoaren eta Unai Iturriaga bertsolariaren txanda izango da. Euskararen normalizazioaren alde orain arte izan eta egin duguna baloratu eta egiteko daukaguna irudikatuko dute.


Koska-ren 'Garratzasuna' abestiaren bertsioa egin du Ruper Ordorikak

Azukre koxkorak diskoa kaleratu du Ruper Ordorikak, hamabi talde edo artistaren kantuen bertsioen albuma. Tartean, Elgoibarko Koska taldearen estreinako diskoko *Garratzasuna* kantuarien bertsioa ere jaso du. Euskarazko rockaren lehen belaunaldiko taldea izan zen Koska. *Expresion Sonora* taldetik sortu zen, 1974an, eta rock jaialdi askotan parte hartu zuen. Lehen diskoa, *Koska* (IZ, 1976), euskarazko rockaren lehenengoetakoa izan zen, Errobi taldearenarekin batera. 80ko hamarkadan rock emanaldiak laga eta plaza talde bilakatu zen. Alfonso Guillo eta Gabi Agirregomezkorta izan ziren taldeko buruak, baina honako hauek ere osatu zuten taldea: Txerra Gurrutxaga (kitarra eta kantaria), Endika Iriondo (bateria) eta Mitxi Diego (gitarra akustikoa).

Archipiel taldearen kontzertua, domekan

Sinuose elkarteak Archipiel taldearen kontzertua antolatu du domekarako. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan. Alvaro Barriuso eta Ainara LeGardon bikoteak osatzen du Archipiel. Inprobisazioa, poesia fonetikoa eta musika-jolas estrategiak lantzen dituzte, bereziki, eta zuzeneko saioetan gorputzeko keinuen eta isiltasun uneen bidez iristen dira ikusleengana. Doinu elektronikoen laguntzarekin osatzen dute ikuskizuna. Sarrerak 3 euro balio ditu.

'Euli giro' liburua argitaratu du Uxue Alberdik



Uxue Alberdik *Euli-giro* (Susa) kaleratu du, bederatzi ipuin biltzen dituen liburua. Helduentzako literaturaren arloan hirugarren liburua du Alberdik. *Aulki bat elurretan* ipuin liburua (Elkar, 2007) eta *Aulki-jokoa* eleberria (Elkar, 2009) dira aurreko biak. Alberdik azaldu du ipuin denak gaur egunean kokatuta daudela, baina oso diferentziak direla euren artean. Ipuin guztiak «barrutik kanpora» sortutakoak esan zuen idazlean aurkezpen ekitaldian, sentipen bat izan duela beti abiapuntu.



‘Fènix’ filma eskainiko du Ongarrik hilaren 17an, katalanaren defentsa egin zuen nerabe baten istorioa

Beste hiru film eskainiko dituzte urrian eta azaroan

Eric Bertran 14 urteko nerabeak bizitako drama kontatzen du Fènix filmak. Katalanaren defentsa egiteko, webgune bat sortu zuen Bertranek, *Harry Potter and the Order of Phoenix* liburuan oinarrituta. Haren bidez, mezu elektronikoa bat bidali zion 2004an Dia supermerkatuen kateari, mesedez marka zuriko produktuen etiketazetan katalana beste hizkuntzak bezala erabiltzeko eskatuz. Ez zuen us-teko burutazio horrek horrenbeste arazo ekarriko zizkionik gero. Hori egin eta gutxira, 30 bat guardia zibil joan zitzaizkion etxera, gaeuz, eta ekintza terroristar informatikoa egitea leporatu zioten. Eta hain justu ere, Bertranek eta bere familiak bizitako drama kontatzen du

Joel Joan zinemagile kataluniarrak film-man. Terrorista izendatu eta bizi osorako estima ezarri zion Espainiako Auzitegi Nazionalak Bertrani. Pasatakoa pasata, atxilotu zutenetik urtebetera, 2005ean, *Èric i l'Exèrcit del Fènix* liburua kaleratu zuen Bertranek eta *L'institut de la vergonya* idatzi zuen gero, 2007an, akusazio hori zela medio institutu garaian sufritu behar izan zuena kontatuz. Bi liburu horietan oinarrituta egin zuten gero datorren eguenean Elgoibarren ikusi ahal izango dugun filma.

Beste hiru film

Ongarrik beste hiru film eskainiko dituzte datozen asteetan. Hilaren 24an eta 25ean *La mejor oferta* filma ikusteko au-



kera izango da Herriko Antzokian, urriaren 31n eta azaroaren 1ean *Tierra prometida*, eta azaroaren 5ean *El Bulli*.

Hizkuntzen kudeaketarako 30+10 mintegia egingo dute IMHn urriaren 23an

Enpresa munduko hizkuntzen kudeaketari buruzko mintegia antolatu du IMHk urriaren 23rako. Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkarien hitzaldiez gain, enpresa munduko sei ordezkarien hitzaldiak, tailer praktikoa eta bi mahai-inguru eskainiko dituzte. Enpresa, ikastetxe eta erakundeentzat baliagarriak izan daitezkeen zerbitzuak, baliabideak eta esperientziak aurkeztuko dituzte.

Aurtengo hitzaldiak Ahize-AEK, Argia, Artez, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea, Banaiz-Bagara Elkartea, Elhuyar, Emun, IMH, Laneki eta Langunek eskainiko dituzte. Tailerra Lanekik dinamizatuko du, "Langileen prestakuntza euskaraz" gaia oi-

narri hartuta. Horrez gain, euskal enpresek Errusian saltzeko hizkuntza nola baliatzen duten azalduko dute AFM, Fagor Automation eta Ona Electro-Erosión enpresetako kideek. Era berean, Onintza Irureta ARGIAko kazetariak marka euskalduna duten enpresekin solasean arituko da, besteak beste, Azk-Taldekoekin, Euskal Herria Esnekoekin eta Ternuakoekin.

Mintegia 9:00etan hasiko da, eta 14:00ak aldera arte iraungo du. Doakoa da, eta edonork hartu dezake parte, baina horretarako aurrez izena eman behar da. Interesatuak imh@imh.es helbidera idatzita edo 943 744 132 telefonora deituta eman dezakete izena.

Kantu-dantza kalejira, urriaren 18an

Elgoibarko Kale Kantariak, txistulariak, musika eskolak eta Haritz Dantza taldeak kantu-dantza kalejira antolatu dute urriaren 18rako. Kalegoen plazan batuko dira 19:00etan, eta kaleak zeharkatuko dituzte kantuan eta dantzan. Herriar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

Bi antzerki, asteburuan

Udaleko Kultura Sailak bi antzerki antolatu ditu asteburu honetarako. Gaur Ni para ti, ni para mí antzezlanaren taularatuko du Txalo Produzioak taldeak. Belinda Washington eta Miriam Diaz Aroca aktore ezagunak dira protagonistak. Elkar ulertzera kondenatuta dauden bi emakumeen istorioa da. 20:30ean izango da ikuskizuna, Herriko Antzokian. Domekan, bestalde, *Hansel eta Gretel* umeentzako antzezlanaren eskainiko dute Glu-Glu konpainiak. Hansel eta Gretel basoan galduko dira, eta noraezean dabilazala, txokolatezko etxea aurkituko dute. Sorgin maltzur batekin topo egingo dute han. 16:30ean izango da saioa.

Idotorbeko bizikleta igoera eta rollski igoera jokatu dira bihar

12:00etan abiatuko dira plazatik txirrindulariak

Txirrindularitzak eta rollskiak bat egingo dute bihar Elgoibarren. Urtero antolatu ohi duen legez, Julian San Juanen omenezko Idotorbera bizikleta igoera antolatu du Lagun taldeak biharko. 12:00etan irtengo dira txirrindulariak Kalegoen plazatik, eta 3,8 kilometroko ibilbide maldatsua egingo dute Idotorberaino. Iaz 41 lagunek parte hartu zuten eta Mikel Hernandez (14:09) eta Ainhoa Lendinez (19:04) nagusitu ziren.

Bizikletakoak plazatik abiatu ostean hasiko da rollski igoera, 12:20ak aldera. Igoera kronometraturua izango da, eta izena eman behar da. Horretarako bi aukera daude: egunean bertan 11:30etik aurrera udaletxe aurrean jarriko duten mahaietan edota Internetez, Pirukeriak blogean sartuta: <http://pirukeriak.blogspot.com.es>. Izenematea debalde da.



Aurrez, Maripotzura igotzeko geldituko dira: 9:30ean, IMHko bidegurutzean. Maripotzura igotzeko ez da beharrezkoa aurrez izena ematea, baina antolatzaileek jakinarazi dute zenbat lagun batuko diren jakinez gero autoetan lekua gordetzeko aukera izango dutela, Maripotzutik jaisteko.

Domekan jokatu da Debarrenako BTT martxa

Debarrenako BTT martxa antolatu dute etzirako. Debegesa Garapen Agentziak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak elkarlanean antolatzen dute proba hau, Debemen eta eskualdeko BTT klubekin laguntzarekin. Domekan, Mintxetatik, Debarrenako BTT zentrotik bertatik, irtengo dira partehartzaileak, 9:00etan, eta Debarrenako BTT zentroak dituen ibilbide ikusgarriak ezagutzeko aukera izango dute mendi bizikletaz. Bi ibilbide izango dituzte aukeran: laburra, 25 kilometrokoa, eta luzea, 45 kilometrokoa. Biak ala biak Karakate mendian zehar. Proba amaitu ostean, opariak zozketatuko dituzte parte hartzen duten guztien artean. Interesatuak www.kirolprobak.com helbidean eman beharko dute izena biharko. Antolatzaileek jakinarazi dute aurten ez dela egunean bertan izena emateko aukerarik izango.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Azaroaren 10ean jokatu da aurtengo Behobia-Donostia lasterketa, eta hara joateko autobusa antolatu du Mintxeta atletismo taldeak, Patronatuaren laguntzaz. Korrikalariet gain, senide edo lagunek ere izango dute autobusean joateko aukera. Patronatuko bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte. Lagunek eta bazkide ez direnek, 12 euro. Interesatuak azaroaren 8rako eman beharko dute izena mintxeta@mintxeta.com helbidean eta Mahats ardandegian.

EMAITZAK

FUTBOLA

C. Durango **3** – Haundi **1** (3. maila)
Elgoibar **0** – Zestoa **2** (Erreg.)
Elgoibar **1** – Bizkerre **3** (Neskak)
Beasain **5** – Elgoibar **1** (Jub.)
Elgoibar **4** – Urki **0** (Kad. A)
Ikasberri **9** – Elgoibar **2** (Kad. B)
Elgoibar **2** – Lagun Onak **3** (Inf. Txiki)

PILOTA

Hernani **22** – Lagunak **15** (1. mailako nag.)
Legazpi **22** – Lagunak **15** (3. mailako nag.)
Ziotza **22** – Lagunak **20** (2. mailako jub.)

PALA

Azkoitia **25** – Lagunak **18** (2. mailako nag.)
Usurbil **25** – Lagunak **14** (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile **9** – AD Fuenmayor **4** (2B)
Egintza **0** – King-Kong **2** (Jub.)

ESKUBALOA

Aiala Zarautz **23** – Astigarraga Elg. **22** (Jub. neska)
Aiala Zarautz **17** – Tecnifuelle Elg. **29** (Kad. neska)
Beristain Elg. **22** – Egia **27** (Jub. mutilak)
Pneumax Elg. **40** – Urola KE **17** (Kad. mutilak)
Txariduna **30** – Amenabar Zarautz **28** (Kad. mutilak)
Urnietako KE **12** – Murgil Elg. **22** (Kad. neska)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12
10:00 Elgoibar – Urola (Kad. B)
17:00 Haundi – Lagun Onak (3. maila.)
12:00 Elgoibar – Ordizia (Jub.)
Domeka, 13
11:00 Elgoibar – Urki (Aleb.)
12:30 Elgoibar – Urki (Inf.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 12
17:45 Alkorta Elg. – Pulpo (Sen. mut.)
19:30 Lauko Elg. – Sporting Logroño (Sen. neska)

PILOTA

Barixakua, 11
21:30 Lagunak – Antigua (2. mailako jub.)
22:00 Lagunak – Hernani (1. mailako nag.)
22:45 Lagunak – Gazteleku (3. mailako nag.)
Zapatua, 12
11:00 Lagunak – Aurrera Saiaz (2. mailako kad.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lan bila. Umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **686 052 084**
- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Nagusiak zaintzen esperientzia. Garbiketak ere egingo lituzke, garaje, bulego nahiz tabernetan. ☎ **692 332 871**
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina, ikasleen trukea eta azterketen prestaketa. EOI. ☎ **670 793 312**
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **672 076 852**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **686 052 084**
- Gizonezkoa lan bila: garbiketa lanetan ibiltakoa. ☎ **692 332 871**
- Ingeles eskolak ematen ditut, etxeko-etxe. ☎ **943 744 062 / 680 319 002**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Garbiketa lanetan esperientzia handia. Portalak, tabernak, etxeak, elkarteak... garbituko nituzke. Orduka. Gauzez lan egiteko prest. ☎ **696 583 671**
- Frantsesa, latina, euskara eta gaztelarako klaseak ematen ditut. ☎ **617 114 185**

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko harrerarako edo zerbitzari lanerako. ☎ **606 354 982**
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. ☎ **609 842 165**
- Emakumea lan bila. Paperak eta erreferentziak ditut. ☎ **638 863 019**
- Gizon gaztea lan bila. ☎ **662 576 146**
- Mutil arduratsua edozein lan egiteko prest. ☎ **631 429 711**
- Emakumea lan bila. Edozertarako eta edozein ordutegitan. ☎ **628 188 028**

ETXEBIZITZAK

- Apartamentu eguzkitsua alokatzen da. Berria, hornitua. Oso egokia pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat. ☎ **629 628 661**
- Pisua alokatzen da. Bi logela, egongela handia, sukaldea, igogailua, terraza, ganbara. ☎ **646 581 666**
- Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **690 701 118**
- Etxea salgai erdigunean. 91m2, dena kanpoaldera, igogailuarekin. Teilatua eta fatxada berrituta. 143.000 euro. ☎ **609 141 312**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Ikastola ondoan. ☎ **943 531 648 / 669 916 148**
- Garaje itxia alokairuan, Santa Klaran. ☎ **615 799 813**

BESTELAKOAK

- Taxi lizentzia salgai, gama altuko autoarekin. Bezero poltsa handia. ☎ **630 884 181**

KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- Artetxe Behean bizi direnen eta bizi izan direnen bazkaria azaroaren 16an, Sigma jatetxean. Lehen deialdia, 19:00etan Viento Sur gastrotekan, eta bigarrena, 20:00etan Jai Alai tabernan. Interesatuak 45 euro sartu behar dituzte azaroaren 8rako, kontu korronte honetan: **2095 5036 52 1068686269**
- 1988an jaiotako enafaria, azaroaren 9an, Karakate jatetxean. 19:00etan batuko dira, udaletxe azpian. 35 euro ordaindu behar dira, urriaren 13rako, kontu honetan: **2095 5036 50 9112978251**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Bizilagunek esan didate hiru egun barru bilera daukagula. Nik oraindik ez dut bilera-rako deialdirik jaso. Derrigorra al da deialdi hori bidaltzea? Eta izatekotan zenbat egun aurretik bidali behar da?

Bi motatako bilerak daude: ohikoak eta ohiz kanpokoak. Ohiko bilerak urtean behin egiten dira. Bilera horretan urteko kontuak aurkeztu behar izaten dira etxejabeen batzordeak onar ditzan (urteko diru-sarrerak eta gastuak). Gobernu organoak ere berritzen dira; eta hau da presidente, presidenteorde, idazkari eta gainerako kargu berriak izendatzen dira, eta hurrengo urterako aurrekontua aurkezten da. Ohiko bilera horietara gutxienez sei egun aurretik deitu behar izaten dira bizilagunak.

Ohiz kanpoko bileren kasuan, legeak ez du zehazten zenbateko aurrerapenez jakinarazi behar diren, baina bizilagun guztiak izan behar dute bilera horien berri, beraz denboraz egin behar dira deialdiak. Urgentziazko gaiak lantzen dira bilera horietan.

Gomendioa: Derrigorrezkoa da deialdien berri ematea, bizilagunek horretarako eman duten helbideetan. Ohikoena portaleko iragarkien tabloian jakinaraztea da, eta tabloirik ez dagoen kasuetan, denek ikusteko moduko lekuan jarri beharko da.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Badatorrela urriak 16xa! Zorionak, **Txiko Manex** 6 urte! Ondo-ondo pasa zure egunean, Maddiren eta beste guztien partez.



• Zorionak, **Jon!** Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Patxo handi bat familiakoen, eta bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Malen!** Etxeko txikiak 2 urte. Patxo pila bat etxeko- en, eta bereziki, Luke- nen eta Leireren partez.



• Zorionak, **Ela,** 2 urte egin dituzulako! Muxu handi-handi bat aitazo eta amatxoren partez. Asko maite zaitugu!



• Zorionak, **Jenni,** asteartean 22 urte egin- go dituzulako. Etxeko guztien partez. Animo.




• Zorionak **Oier Arriola-** ri, hamahirugarren urtebetetzean, eta patxo handi bat, Xabiren partez.



• Zorionak, **Luken!** Gaur urtebete! Horrelako bokadillo haundixak janda, mutil haundixa egingo zera! Elgoibarko sorgiñen partez.



• Zorion bero-beroak **Kaieti** atzo urtebete egin zuelako. Gurasoen eta anaia Urkoren partez.



• Zorionak **etxeko bihurriari!** Oso ondo pasatuko duzulakoan, zortzi muxu handi, familiakoen partez.



• Zorionak, **Garazi!** Unai, Elur, guraso, le- hengusu eta amona Ankoraren partez.



• Zorionak, **Ugaitz,** 3 urte egin dituzulako. Etxekoen partez, segi orain arte bezain alai.




• Zorionak, **amumal!** Ondo pasa eguna! Familiako guztien partez, patxo handi bat.



• Zorionak, **bikote!** Ondo-ondo ospatu zuen bigarren urtebetetzea, familiakoen partez. Muxu handi bana!



• Zorionak, **Garazi,** zure urtebetetze ondorenean, eta **aiton-amonei** zorionak zuen ezkontza urteurrenean. Etxeko- en, eta bereziki, Irune eta Julenen partez.



• **Iker, Javier eta Manex,** urriaren 1ean, 4an eta 8an urteak bete zenituztelako, zorionak eta muxu handi bana familiakoen partez.




• A zer paria, **aittita Martin eta Julen!** Zorionak, eta muxuak, familixakuen partez.

DEIALDIA OSPAKIZUNA




Duela bi urte moduan, bazkaria egingo dute **1951. urtean jaiotakoek.** Azaroaren 9an izango da bazkaria, Sigma jatetxean, 14:30ean. Intere- satuek 30 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxaren kontu korronte honetan: 30350007230071128094. Egunean bertan parrokiako arkupeetan batuko dira, 13:30ean.



Urriaren 19an,
LUDORI AGUR FESTA
ludotekan, 17:00etatik aurrera.
Merendola eta jolasak Ludori
bidai ona opa izateko!

Bihar, urriak 12,
gaztelekua itxita egongo da.
Ilgandean 17:00etan
irekiko ditugu ateak



11 barixakua

Antzerkia

20:30 'Ni para ti, ni para mí'

Txalo produkzioak taldeak aurkeztuko du. Herriko Antzokian.

12 zapatua

Kirola

12:00 Idotorbera igoera

Lagun Taldeak antolatuta, Kalegoen plazatik.

Segidan, Rolleski igoera

Kalegoen plazatik, Idotorbera.

Manifestazioa

13:00 Arnaldo Otegiaren aldeko manifestazioa

Kalegoen plazan hasiko da.

Manifestazioa

16:00 LOMCEren kontrako manifestazioa

Bilbon egingo den manifestaziora elkarrekin joateko auto-kedada. Santa Ana kaleko errotondan.

Aisialdia

16:00 Amora ibilaldia

Mendaroko ludotekakoekin, Herriko Enparantzatik.

13 domeka

Kirola

9:30 Mendi irteera

Ikastolako guraso eta ikasleak Arbil mendira joango dira. Gaztetxe pareko aparkalekuan batuko dira.

Antzerkia

16:30 'Hansel eta Gretel'

Glu Glu antzerki taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

Musika

19:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Archipel taldeak kontzertua eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan.

16 eguztina

Hitzaldia

19:00 XXI. mendeko euskaldunak

Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatutako hitzaldi zikloaren barruan, Kike Amonarrirek eskainiko du hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Erakusketa

18:30 Argazki erakusketa

Erika Barahona-David Hornback argazki erakusketa. Hilaren 31ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Linea

21:30 'Falso culpable'

Iratxo tabernan.

18 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Kalegoen plazan.

Zinema

18:30 Bideo forum

Agifes elkarteak eta Ongizate Sailak antolatuta, Elling filma ikusiko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Kalejira

19:00 Kantudantza kalejira

Haritz dantzari taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

11	Yudego
12	Zabaleta
	Goizez: Garitao.
13	Zabaleta
14	Barrenetxea
15	Ibañez
16	Garitaonandia
17	Etxeberria

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Garitaonandia
Garitaonandia
Barrenetxea
Etxeberria
Garitaonandia
Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA

«El llanero solitario»

12, zapatua: 19:00/22:15

13, domeka: 19:00

14, astelehena: 21:30




Zuzendaria: Gore Verbinski. AEB, 2013.
Iraupena: 150 min. Abenturak, komedia.

Aktoreak: Johnny Depp, Armie Hammer, Helena Bonham Carter. Maskaradun heroien istorio eta abenturak kontatuko dizkigu film honek. John Reid nola bihurtuko den legezko gizon erakutsiko digu, sorpresa eta ironiaz beteriko bidai baten bidez.

«Fènix 11*23»

(Ongarri zinekluba)

17, egunea: 21:30



Zuzendaria: Joel Joan eta Sergi Lara. Espainia, 2012. 96 min. Drama. Aktoreak: Nil Cardoner, Rosa Gàmitz, Àlex Casanovas, Lluís Villanueva. 2004ko udazkenean girotuta dago filma. 14 urteko gazte batek webgune bat sortuko du, ktaluniera hizkuntza defendatzeko. Gau batean, Madrilgo Guardia Zibilak agertuko zaizkio etxean, eta terrorismo informatikoa egitea leporatuko diote, supermerkatu bati etiketak katalanez jartzeko eskatu izanagatik.



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixllion 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20





AUBIXA aterpetxearen 40. urteurrena

ESKERRAK EMATEKO EKITALDIA

Urriak 19, zapatua, 18:00etatik aurrera

■ **GONBIDATUTA ZAUDETE:**

- Aubixa sortzeko ideia izan eta etxea berritzeko lanetan jardun zenuten gurasoak.
- 40 urteotan umeekin lanean jardun duzuen begiraleak eta hezitzaileak.
- 40 urteotan Aubixatik pasa zareten neska-mutil guztiok.

■ **PROGRAMA:**

- 18:00etan, ONGI-ETORRIA eta etxea bisitatzea.
- 19:00etan, ESKER-EMATEKO EKITALDIA.
- 20:30ean, AFARI-MERIENDA.
- 22:00etan, ERROMERIA.

Ekitaldian parte hartzeko IZENA EMAN BEHAR DA.

Elgoibarko Izarra: 943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Izena emateko azken eguna: urriak 18, ostirala.

Ekitaldi-jaia doan izango da.